

HERNANIK kronika

2004 urtea
Abenduak 21
Astearteak
Alea: 1328
www.kronika.net

2005-EKO UDAL AURREKONTUAK

PSE-EEk osoko zuzenketa aurkeztu du “iazkoaren jarraipena delako, eta hora ez da oso erreala izan”

■ PSE-EE: “Sarrera arruntak jaitsi egiten dira eta gastuak igo. Hori konpontzeko legeak onartutakoa baino kreditu haundiagoa eskatu da” ■ Sozialistek uste dute sentsibilizazio sozialean behera egin dela.

PSE-EEk osoko zuzenketa aurkeztu dio Gobernuak egin duen aurrekontu proposamenari. PSE-EEren iritziz, 2004ko aurrekontuaren jarraipena da 2005eko proposamena eta, beren hitzetan, “oso demonstratua dago 2004ko ez dela oso erreala izan, inbertsiorako aurrikusitako diru asko erabili gabe gelditu baita, eta okerragoa dena, defizita sortu da espero ziren diru sarreretan”. Oposizioko alderdiak dio 2005eko aurrekontu proiektuan sarrera arruntak jaitsi egin direla eta gastuak igo. Hori konpontzeko “Udal patrimonioa saltzea proposatu du Gobernu taldeak eta legeak onartutakoa baino kreditu haundiagoa eskatzen zaio bankuari. Horrek Udala harrapatura utzik du hurrengo aurrekontuetarako”.

Sentsibilizazio soziala jeitsi PSE-EEk uste du sentsibilizazio sozialean behera egin duela aurrekontu proposamenak eta hori salatzeko gabezi asko ikusten ditu. Haurtzaindegiko eraikin berria egin eta prestatzeko diru partidariak ez egotea da bat, “eta uste dugu ez dutela guraso eta irakaslekin hartutako konpromezua betetzeko asmorik”. Lan eta formakuntza alorrean, berriz, goragoko instituzioetatik datozen programak bakarrik hartzen diuela dio PSE-EEk. Bestalde, ez du begi onez ikusten “zuzeneko subentzioen kopuru altua, eta euskara alorra azpimarratu nahi dugu, herri honetatik kanpora beren jarduna egiten duten talde zenbaiti laguntha ematen baitzaie”. Horrez gain, immigratio alorrean emandako zenbait laguntha “ilun gelditzen dira, ondo zehaztu eta argitu gabe”. □



PSE-EEk dio etxebizitza dela herriaren arazo nagusienetako, batez ere gazteentzat.

Babes ofizialeko etxeak egiteko lurra erosteko eskaria

PSE-EEko oposizioko taldeak emendakin aparteko bat ere aurkeztu du osoko zuzenketaz gain, puntu honi garrantzia berezia ematen diolako. Babes ofizialeko etxeak egiteko lurrik erostea ez dela aurrikusten salatu du eta eskatzen du diru kopuru bat horretarako jartzea. PSE-EEren hitzeman harrarentzat arazorik haundienetako bat da etxebizitza erostea eta “are eta arazo handiagoa da gazteen artean, etxebizitzak gero

“Zertan oinarritzen da Gobernu Taldea igerileku irekiak egitea babes ofizialeko etxeak egiteko lurra erosten gastatzea eskatzen du “1-2 kapituluetako % 10a”. PSE-EEk dio Udalak ez duela legez kanpo erabili diru hori, baina, tranpa moduko bat bilatu duela “lurrik erosi beharrean Udalaren ondarea diren trenoetan obrak egingo baitituzte eta horrek ez dio etxebizitza arazoari irtenbidetik jartzen”.

eta garestiago baitaude eta horrela ezin dute beren garapen pertsonala eta bizitza proiektua garatu”.

1-2 kapituluetako % 10a PSE-EEk Lur patrimonioko legeak dioena babes ofizialeko etxeak egiteko lurra erosten gastatzea eskatzen du “1-2 kapituluetako % 10a”. PSE-EEk dio Udalak ez duela legez kanpo erabili diru hori, baina, tranpa moduko bat bilatu duela “lurrik erosi beharrean Udalaren ondarea diren trenoetan obrak egingo baitituzte eta horrek ez dio etxebizitza arazoari irtenbidetik jartzen”.

■ ERREMONTEA

Altuna Ila-Etxabek Ezkurra-Badiolareen kontra jokatuko dute semifinala

BINAKAKO txapelketaren barruan, Garikoitz Altunak eta Jokin Etxabek Ezkurra eta Badiolareen kontra jokatuko dute semifinala Galarretan. Hernaniarrak eta amezketarrak 40-37 irabazi zieten Bitoria-Eizagirri oso partidu gogorra jokatuta. Semifinala ostiralean jokatuko dute. □

Mahaingurua bihar, lehenengo eta oraingo lan munduari buruz

DOBERA Sariko ikerketaren barruan, mahainguru irekia egingo da asteazkenean Biterin, azken 40-30 urteetako lan munduari buruz. Garai ezberdinak zenbait langile eta langile ordezkarri beretan izango dira. Biterin, 19:00-ean da. □

JUBILATU ETXEA

Karta eta bilar txapelketako sariak banatuko dira


GOIZ Eguzki Jubilatu Etxeak karta eta bilar txapelketako sariak banatuko ditu gaur eguerdiko 12:00-ean. Ondorenean, txistorra jana izango da. □


Doberako Olentzero

DOBERAK Euskara Elkartea adierazi du ostiral honetan, hilaren 24an, Olentzeroa baserriz baserri joango dela. Gudarien plazatik aterako da 15:00-ean eta Osiñagako baserri eta sagardotegiak bisitatuko dira. Bertsolari eta trikitilariek izango dira taldean eta kantu liburuak banatuko dira. □

brintza
Brintza, S.L.
Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskalak
Aseguruak, Inbertsioak

Juan de Uribia 15
Tel.: 943 331267
Fax: 943 330892
20120 Hernani


ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobil: 633 74 10 97
20120 Hernani

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAIEGIA

Kardaberaz 39
Tel.: 943 55 27 87
20120 Hernani

JANTZI DENDA
AMBOTO
ESKAINITZA
BEREZIAK
Zatoz eta zerorreki kusi
Nagusia 54 - Hernani
Anaiak 25 - Lasarte

Santo Tomaseko ospakizunak

SANTO Tomas eguna gaurda, baina, asteburuan ere ospakizun asko egin dira Hernanin. Ekitaldiak, gainera, herri barruan ez ezik, auzoetan ere izan dira: Sorgintxulon, Portun, Orkolan, Karabelen eta abar. Guztietan ez zen txistorra eta sagardorik falta. Plaza Berrian zozketa txerri bat zozketatu ere egin zen eta 1.733 zenbakia hartu zuenak jasoko du saria. Zenbaki hori duenak 943-551956 telefonora deitu behar du, bi asteko epean. Gaur ere izango izango dira ekitaldiak, besteak beste Jubilatu Etxean, 12:00etan. Eskubiko argazkietan, Plaza Berri eta Sorgintxuloko festa. □



Akordeoi Orkestrak 1go saria Arrasaten.

Hernaniko akordeoilari gazteek lan dotorea egin dute Arrasaten eta lehen saria lortu du Akordeoi Orkestak, maila gorenean. Lan indibidualari dagokionean ere postu oso ona lortu dute herniarrek: Miren Aierbek urrezko medaila lortu du A mailan; Janire Urrestarazuk zilarra B mailan, Ane Aierbek urea C mailan; Edur-

ne Garcia, Itxaso Piquer, Janire Urrestarazuk eta Leire Juanes eta Aitor Ortiz akordeoilariet osatutako taldeak C kamaran urrezko medaila lortu dute; Maddi Almandoz, Josu Azkue, Naroa Jaka, Irati Larrañaga, Maider Ugalde eta Alazne Urdangarinek hastapenak A mailan urrezko domina lortu dute; Maria Acuña, Elixabete Bergaretxe eta Ane Monterok zilarrezko domina lortu dute

eta Maider Senperrek brontzezko; hastapena B mailan urea Ana Herrero eta Nagore Lopezek lortu dute, zilarra Vinaixa Garcia eta Ana Mendluzek eta brontzea Alaine Sarriegik; hastapenak C taldean urea Edurne Garcíak lortu du. Junior barienteetan Leire Aiapek lortu du 5garren postua. Guztira 300 akordeoilarik hartu dute parte eta herniarrrak 47 izan dira. □

Ibarretxe Planak planteatzen du Euskadik hitza izatea Europan eta munduan

■ EA-EAJk adierazi du Europako hauteskundeetan Euskadi eremu bakarra izatea dakarkiela planak.

HERNANIKO EAJ-EA koalizioak

adierazi du Ibarretxe planak defenditzen duela Euskadik hitza izatea bai Europan eta bai munduan. Plana aurrera ateratzen bada, "Euskadik bere interesak eta konpetentziak zuzenean defendituko ditu Europan". Hauteskundeei begira ere planteatzen ditu aldaketak. Ibarretxe Planak proposatzen du Euskadi haueskunde eremu bakarra izatea, Europako legebiltzarra

aukeratzeko.

Euskadik nazioartean bere hitza izateak dakazkien beste puntu azpimarragarriak dira, EA-EAJren esanetan: Jaurlaritzak delegazio ofizialak zabaltek aukera, eta nazioarteko hitzarmenek euskal erakundeen onarprena behar izatea, euskaldunei dagozkien gaietan. Era berean, Euskadik nazioarteko erakundeetan ordezkaritzaz izango luke naziorik gabeko estatu gisa. □

I URTEURRENA

Nieves Etxenike Aranburu

2003ko abenduaren 21ean hil zen 77 urte zituela.



Nieves gure artetik joan zela urtea bete den honetan, senitartekoek oroirgarri meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik eskerrik asko.

Urteurreneneko meza, **igandea, abenduak 26**, goizeko 11:00etan, San Joan Bataiatzailea parrokan.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulitorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 ☎ 943 336077
- Gauzez: Iturralde Usurbil. Polígono 13, 9 ☎ 943 363395

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, acupuntura, ajuste neurologiko eta vertebral, reflexología, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (**Sta Barbara 42**)

Etxebizitza salgai herrikik gertu. Hiru gela, kalefazioa, lur zatia, txokoa eta aterpea. Interesatuek deitu: 635 75 86 61

VITAL KUTXA. 70 plaza libre. Laster hasteko. Matrikula zabalik. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAUR HEZIKETA. Haurtzandegi publiko eta haur eskolatan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

TXOFERRAK. Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan laster hasteko. Doako informazioa. 943 43 41 27.

SUKALDE LAGUNTZAILEAK. Eskola, erresidentzia eta Eusko Jaurlaritzan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA. Udaletan laster hasteko: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Doako informazioa. 943 43 41 27.

PEOIAK elektrizistikak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Erakunde publikoetan plaza libreak. Doako informazioa. 943 43 41 27.

UDALTZAINAK. 25 plaza bete behar dira: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Irun, Arrasate. Doako informazioa. 943 43 41 27.

LABORATEGIA. Teknikariak, auxiliarrak. Plaza libreak Udaletan, Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

HAURTZAINDEGI PUBLIKOAK. Plaza libreak, zaintzaileentzat. Postu libreak eskola publikoetan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

BASOZAINA. Udaletxe, Foru Aldundi eta Administrazio publikoan. Doako informazioa. 943 43 41 27.

KROMÍKIA

